

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

**123/2020 Foru Agindua, uztailak 30koa, irteerak mugatzen dituena, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako bisitak mugatzen dituena eta titulartasun publikoko eguneko zentroen aldi baterako itxiera/irekiera zehazten duena 2020ko uztailaren 30etik aurrera**

2020ko uztailaren 21ean 107/2020 Foru Agindua eman zen, Arabako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailari atxikitako adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko egoitza-zentroei eta titulartasun publikoko eguneko zentroei buruzko zenbait neurri ezartzen zituena.

Neurri horiek egoera epidemiologikoaren bilakaerari eta osasun-agintarien gomendioei lotuta zeuden, eta Gizarte politiketako foru-diputatuaren foru-agindu bidez zabaldu edo aldatu ahal izango ziren.

Zerbitzu horien erabiltzaileen eta horien langileen osasuna eta osotasuna babesteko, COVID pandemiaren bilakaerari dagokionez eta zuhurtasun-printzipioaren arabera eta egungo egoera epidemiologikoan oinarrituta, beharrezkoa da beste foru-agindu bat ematea, 2020ko uztailaren 21eko 107/2020 Foru Aginduan jasotako alderdiak berriro arautzeko. Agindu horren indarraldia gaur amaituko da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuan eta ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan oinarrituta.

COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteak. Sail honek eskumena du zentroek behar bezala funtzionatzeko behar diren jarraibideak emateko eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko.

Indarrean dagoen araudian esleitutako eskumenetan oinarrituta:

#### XEDATZEN DUT

**LEHENENGOA.** Arabako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailari atxikitako adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko egoitza-zentroetako erabiltzaileei eta titulartasun pribatuko hainbat zentroan Arabako Foru Aldundiak itundutako plazetan dauden erabiltzaile guztiei irteera mugatzea.

Hala ere, erabiltzaileek gehienez 2 orduko irteerak egin ahal izango dituzte egoitzako lorategira, bisitarekin batera. Zentroak lorategirik ez badu, egoitza-ingurunetik kanpo irten ahal izango dira, langileek lagunduta, paseotxo bat egiteko. Ezin da familiarekin bazkaldu.

Bestalde, salbuespen gisa, gutxienez astebeteko eta gehienez 45 eguneko irteerak baimendu ahal izango dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza Gerentziak baimena eman ondoren, eta familia edo pertsona arduradunak dagokion erantzukizun-agiria sinatuta.

**BIGARRENA.** Adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako titulartasun publikoko egoitza-zentroen erabiltzaileei eta Arabako Foru Aldundiak titulartasun pribatuko hainbat zentroan itundutako plazetan dauden erabiltzaile guztiei bisitak mugatzea, gehienez 2 orduz zentro bakoitzaren aukeren arabera, eta astero alda daitekeen pertsona batengatik.

**HIRUGARRENA.** Arabako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailari atxikitako titulartasun publikoko eguneko zentroak ixtea, Bizia eguneko zentroa (astelehenetik ostiralera), Zadorra eguneko zentro lagundua eta Ariznabarra psikogeriatrikoa izan ezik, 2020ko uztailaren 30etik abuztuaren 2ra bitartean, biak barne.

**LAUGARRENA.** 2020ko abuztuaren 3tik aurrera, aurreko atalean adierazitako titulartasun publikoko eguneko zentro itxiak irekitzea, Bizia eta San Prudentzio IKZen asteburuko zerbitzuak izan ezik.

**BOSGARRENA.** Arabako Lurralde Historikoko udalei eta titulartasun pribatuko zentroeiei gomendatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Foru Sailak xedapen honetan onartutakoen antzeko neurriak har ditzaten.

**SEIGARRENA.** Foru agindu honek 2020ko uztailaren 30etik abuztuaren 9ra (biak barne) izango ditu ondorioak, hirugarren paragrafoan xedatutakoa izan ezik. Hala ere, guztia ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 30

*Gizarte politiketako foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUELEZ**